

## 1. XEDEA

Prestazio honen helburua da [Nordic Klinika](#)ren, Laneko Osasun eta Ongizate zerbitzuaren, tratamendua amaitu izana justifikatzen duten 65 urtetik gorako titularrentzat laguntza ekonomikoa. Zerbitzu honen helburua nahasmendu muskuloeskeletikoak prebenitzea edo hobetzea da (bizkarreko minak, zerbikaletakoak, sorbaldeetakoak, aldaketakoak edo belaunetakoak).

## 2. DESKRIBAPENA

Nordic Klinica izeneko Laneko Osasun eta Ongizate zerbitzu berriaren tratamenduaren gastua ordaintzen laguntzeko 100€ arteko prestazioa da.

## 3. BALDINTZAK


Eskaera	BEHARREZKOA
Nork eska dezake laguntza	65 urtetik gorako titularrek.
Nork jaso dezake laguntza	Nordic Klinika tratamendua amaitu izana justifikatzen duten 65 urtetik gorako titularrek. Baldintza hauekin eskatu ahal izango da: <ul style="list-style-type: none"> <li>Laguntza urtean behin soilik eska daiteke.</li> <li>Ezinbestekoa izango da Nordic Klinikak emandako ziurtagiri bat aurkeztea, tratamendua amaitu dela adierazten duena.</li> <li>Tratamendua 8:00ak eta 16:00ak bitartean egin behar da.</li> </ul> Prestazioa eskatu ahal izateko, La Fundacióneko titularra izan beharko da prestazioa eskatzeko unean.
Antzintasuna	5 urte, prestazioa eskatzen den egunean.

Familia-unitatean titular bakarra badago, urtean prestazio bakarra eskatu ahal izango da kontzeptu horregatik.

Familia-unitate berean titular bat baino gehiago badago, bi titularrek eskatu ahal izango dute laguntza, baldin eta biek betetzen badituzte adierazitako baldintzak eta tratamendua pertsona desberdinentzat bada.

## 4. EPEAK

Laguntza eskatzeko epeak	01/01etik 12/31ra  Prestazio hori kobratzeko eskubidea izateko, kausazko egitatea prestazioa indarrean dagoen urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izan behar da.
Laguntza	Hilero onesten dira hilabete horretan eskatutako laguntzak.

	<b>LANEKO OSASUNERAKO LAGUNTZA 2021</b>  <b>(65 urtetik gorako titularrentzat)</b>	ISP007-53 Rev: 04 Orr.: 2/2
---	--	-----------------------------------

onesteko datak	
Laguntza ordaintzeko epea	Prestazioa hurrengo hilaren 10ean ordainduko da, abenduan eskatutako prestazioen kasuan izan ezik, horiek urtarrilaren 31n ordainduko baitira.  Ordainketa horiek titularraren kontuan sartu beharreko bankuko transferentzia bidez egingo dira.
Erreklamazio epeak	Ordainketa egin eta hurrengo 15 egunetan.

## 5. INFORMAZIOA ETA ESKATZEKO MODUAK

Informazioa bitarteko hauetako edozein baliatuz eska daiteke:

- presentzialki, Gasteizko Dato kaleko 43.ean ditugun bulegoetan.
- 945 222 900 telefono zenbakian.
- [info@lafundacion.com](mailto:info@lafundacion.com) helbide elektronikoaren bidez.
- Webguneko formularioaren bidez
- Gainera, laguntza hau eta beste batzuk gure webgunean kontsultatu eta eska daitezke: [www.lafundacion.com/eu/](http://www.lafundacion.com/eu/)

## 6. DOKUMENTAZIOA

Prestazioen bidez garatutako jarduerak arautzen dituen prozedura orokorraren eduki osoa aplikatuko da.

1. Eskabidea osorik beteta (La Fundaciónen webgunetik deskarga daiteke, edo bulegoetan bertan eskatu, laguntza aurkeztean).
2. Nordic Klinikak emandako jatorrizko ziurtagiria edo jatorrizko kopia, tratamendua amaitu dela adierazten duena, titularraren edo onuradunaren izenean.
3. Familia-eroldaren ziurtagiri eguneratua eta titularrarekiko mendekotasun ekonomikoaren egiaztagiria (lan-bizitza, pentsioengatik diru sarreren egiaztagiria, aurkeztu den PFEZren azken aitortpena), titularrak prestazio hori eskatzen badu honako onuradun hauentzat:
  - gurasoentzat
  - anai-arrebentzat
  - 25 urtetik gorako seme-alabentzat

***Oharra: titular bakoitzak urtean gehienez 300 euro jaso ahal izango ditu guztira, mendekotasun, hezkuntza eta laneko osasunerako prestazioengatik jasotako zenbatekoak batuta.***

*La Fundaciónek beretzat gordetzen du egiaztatze beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatzeko eskubidea.*